


2. San Roman zidorra

Korres eta San Roman Kanpezu artean

Distantzia: 4,5 km
Denbora: 1 ordu 40 min
Zailtasuna: Ertaina



Korreseko harraska zaharretik irten eta Balearen leize-zuloko harkaitz zuloraino doan pistatik jarraitzen da. San Martineko haitzetatik behera segitzen da, ezkerretara desbideratu arte, Izki latsa zeharkatzen duen zubi batetik. Ulibarriko zidorra eskuinetara utzi eta zati zuzen batetik segitu ondoren, pista utzi eta ezkerretara gorantz egiten duen bide hareatsua hartzen da. Eremu irekietatik eta ezkamezti eta ezpeldun hariztietatik igaro ondoren, zidorra bitan banatzen da, eskuinekoak La Casillako mendatera iristeko aukera eskaintzen du.

Aurrera jarraituz, La Muela de San Romanerantz doan aldapa pikoa igotzen da, La Casillako mendi-muinora heldu arte. Behin hor, eskuinetara egin behar da, sastraka artean aurea egin eta San Roman hiribildurantz jaisten hasteko.

Alternatibak:

La Casillako mendi-muinotik mendebalderantz El Santo haitza inguratzen duen zidorraren aldagai bat hasten da. Handik metro gutxira haitzaren aterpe batean dagoen kriptatxikiraino, San Roman basilizaraino hel daiteke. Zidorrera itzuliz pixka bat igo eta bidea zabaldu eta pagadi batean sartzen da.

Jaitsiera hasten da eta, legar hobi zahar batera heldu baino lehen, zidorra eskuinetara desbideratzen da, eta sasi lautada bateraino garamatzen igoera leuna hasten da, gero ezkerretara desbideratu eta prestatu deneko harkaitz tontorrera iristen da. Zidorra Castejon izenez ezagutzen den parajera jaisten da, non San Roman zidorrarekin topo egiten duen.

La Casillako mendatea

